

Usurbilgo Udala

2016KO IRAILAREN 27AN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Xabier Arregi Iparragirre

Zinegotziak

Xuban Zubiria Elexpe
Jone Urdampilleta Urdampilleta
Iñaki Ugarte Agirre
Miren Josune Estella Arranz
Irene Garcia Palacios
Jose Mari Iribar Zapirain
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Andoni Atxega San Sebastian
Carlos Perez Fraisoli
Fermin Orue-Echevarria Iturri

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel

Kontu-hartzailea: Karmele Lizaso Ubera

Kontratazio teknikaria: Olatz de Miguel Arnaiz

Ezin-etorria adierazi du: Alaitz Aizpurua Labaka

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2016ko irailaren 27an, arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Xabier Arregi Iparragirre izan da Batzarburua.

1.- AURREKO AKTEN ONESPENA:

* 2016KO EKAINAREN 28KO AKTA.

Batzarkideek, 2016ko ekainaren 28ko bilkurako akta aho batez onartu dute.



Usurbilgo Udala

*** 2016KO UZTAILAREN 26KO AKTA.**

Batzarkideek, 2016ko uztailaren 26ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

*** 2016KO ABUZTUAREN 30EKO AKTA.**

Batzarkideek, 2016ko abuztuaren 30eko bilkurako akta gehiengoz onartu dute. Aldeko botoa eman dute Jone Urdanpilletak, Miren Josune Estellak, Jose Mari Iribar-ek, Josune Urkolak, Carlos Perezek eta Fermin Orue-Echevarriak. Abstenitu egin dira bilkuran ez zirelako egon Xabier Arregi, Xuban Zubiria, Iñaki Ugarte, Irene Garcia, Mirari Azurmendi eta Andoni Atxega.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2016KO UZTAILAREN 18TIK IRAILAREN 16RA (2016/0722-2016/0888).

Alkatetzak 2016ko uztailaren 18tik irailaren 16ra bitartean (2016/0722– 2016/0888) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- 2016/0759 DEKRETUAREN BERRI EMATEA.

Batzarkideei, 2016/0759 dekretuaren berri eman zaie eta hauek jakinaren gainean geratu dira.

4.- USURBILGO UDALAREN AHOTS ETA DATU KOMUNIKAZIORAKO SAREAREN BEHARREZKO ELEKTRONIKA HORNITZEA, SAREAREN MANTENTZE ETA LAGUNTZA TEKNIKOKO LANAK BURUTZEA, SAREAREN KUDEAKETA ETA INSTALAKUNTZA ZERBITZUAK EMANEZ.

Alkateak azaldu du kontratazio espediente bat dela hau eta Zerbitzuak eta Obrak Batzordeak diktaminatuta datorrela plenora.

Hemen egiten den proposamenaren helburua dela dio bi sare horiek, ahots eta datuen sareak, enpresa baten esku uztea, bere mantenuan arazorik egon ez dadin eta modu bateratuagoan eraman daitezen.

Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabiliko dela zehaztu du.

Jone Urdanpilletak gaineratu du kontratuak bost urteko iraupena izango duela eta hiru enpresa gonbidatu direla. Plenora ekarri dela dio hain zuzen ere bost urteko iraupena duelako.



Usurbilgo Udala

Josune Urkolak esan du gai hau batzordetik pasa dela bai baina esplikazioak ez dituztela ondoegi ulertu eta abstenitu egingo direla.

Olatz de Miguel kontratazio teknikariak azalpen gehigarriak eman ditu. Gai hau oso teknikoa dela esan du eta bere azalpenek ere mugapen bat dutela. Zehaztu du saretik alde batetik ahotsa doala eta, bestetik, datuak doazela eta gaur egun hauetako bakoitza enpresa desberdin batek kudeatzen duela. Batzordean azaldu zen moduan, arazoak sortzen direnean, udalarentzat zaila izaten dela jakitea esan du ahotsak sortzen duen arazo bat den edo, aldiz, datuek sortzen dutena den. Bi enpresek beraien eremuan ondo funtzionatzen dutela esan du, baina arazoa sortzen denetik benetan jakitera zeri dagokion denbora galtzen dela. Hori dela eta, guztia enpresa bakar batek eramatea hobetsi dela esan du.

Josune Urkolak galdetu du gaur egun zein enpresek ematen dituzten zerbitzuak eta erantzuna jaso du.

Batzarkideek, Zerbitzuak eta Obrak Batzorde Informatzailearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio erabakiak:

“Espediente zkia: ID.05/2016-0377

AURREKARIAK

Kontratuaren gaia eta helburua: Usurbilgo Udalaren ahots eta datu komunikaziorako sarearen beharrezko elektronika hornitzea, sarearen mantentze eta laguntza teknikoko lanak burutzea, sarearen kudeaketa eta instalakuntza zerbitzuak emanez.

Unitate sustatzailea: Idazkaritza-Pertsonalgora

Kontratu mota: Zerbitzu kontratua (hornidura eta zerbitzu kontratu mixtoa).


Espediente-mota: ohiko tramitazioa du.

Esleipena egiteko bidea eta modua: 3/2011 Legegintzazko Errege Dekretuaren arabera, publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez.

Baldintza Orriak: Espedientearekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den Administrazio Baldintza Zehatzen Orriak doaz. Agiri horietan jasotakoa jardunbidearen kudeaketa-beharrei eta baldintzei egokitzen zaie eta, batez ere, 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 115 eta 116 artikuluei.

Araudi aplikagarria

1.- Sektore Publikoen Kontratuen Testu Bategina arautzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilea eta urriaren 12ko 1098/2001 Erregelamendua.



Usurbilgo Udala

2.- Administrazio baldintza zehatzen orriak.

Txostenak

- Kontratazio Teknikariaren lege txostena.
- Kontuhartzailearen ziurtagiria

Kontratua esleitzeko eskuduntza

3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 2. xedapen gehigarriaren 2. puntuan xedatutakoa ikusita, 5 urteko kontratua izanda kontratua esleitzeko eskuduna Usurbilgo Udalbatza da.

Eta aipatutako guztia ikusirik, Zerbitzuak eta Obrak Batzorde Informatzaileak 2016ko irailaren 22an egindako bilkuran, gehiengoz, Jone Urdampilleta, Jose Mari Iribar eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko botoarekin eta Mirari Azurmendiren abstentzioarekin, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

E R A B A K I A

LEHENA.- Publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez, Usurbilgo Udalaren ahots eta datu komunikaziorako sarearen beharrezko elektronika hornitzea, sarearen mantentze eta laguntza teknikoko lanak burutzea, sarearen kudeaketa eta instalakuntza zerbitzuak emanez kontratatzeke espedientea onartzea, eta baita kontratua araupetzen duten Administrazio Baldintza Zehatzen eta Baldintza Teknikoen agiriak ere.

BIGARRENA.- Goian aipatutako gaiak zehatzen duen kontratua burutu ahal izateko gastua onartzea, 2016ko abenduaren 31 arte 338'80 euro (%21 BEZ barne) 1.1000.215.920.00.01 partidaren kontura (AD/520-2016).

HIRUGARRENA.- Prozedura negoziatu honetara 3 enpresa gonbidatzea.

- A
- B
- C

LAUGARRENA.- Proposamenak aurkezteko 15 laneguneko epea ematea jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

BOSGARRENA.- Erabaki honen berri kontu-hartzaileari ematea.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Irene Garcia Palacios, Jose Mari Iribar Zapirain eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.



Usurbilgo Udala

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

5.- ETS ERAKUNDE PUBLIKOAREN ETA USURBILGO UDALAREN ARTEKO ELKARLANERAKO HITZARMENA, AGINAKO GELTOKI ZAHARRAREN ERAIKINA LAGATZEKO, JARDUERA SOZIO-KULTURALETARAKO.

Josune Urkolak galdetu du puntu hau zergatik ez datorren diktaminatuta. Proposatzen dutena da hurrengo batzorde batean puntu hau tratatzea.

Idazkariak erantzun dio hitzarmena bera duela aste pare batetik zutela eskuartean baina zalantza batzuk zeudela eta ETStik astelehenean bertan eman zituztela azkenengo zehaztapenak.

Josune Urkolak adierazi du hitzarmenean esaten dela eraikina ekinbide sozio-kulturaletarako erabiliko dela, baina gero esaten da zehaztutako gauza horietarako bakarrik erabili ahal izango dela. Gaineratu du badirudiela lotuta geratzen dela, baina ez dakitela zertarako erabiliko den zehaztu du.

Idazkariak adierazi du 1987an hitzarmen bat sinatu zela konkretuki eraikina inguruko baserritarrek erabiltzeko aukera ematen zuena. Izena emateko epea zabaldu zenean pertsona bakar bat aurkeztu zen eta honi 20 urtetarako esleitu zitzaioela esan du. Beraz, orain erabilera aldaketa bakarrik egongo litzatekeela zehaztu du.

Alkateak adierazi du sozio-kultural terminoa oso zabala dela eta ia-ia dena barnebiltzen duela. Bestalde, gaineratu du ETStik jakinarazi zaiela berehala bideratu nahi dutela gai hau.

Era berean, adierazi du gai hau plenotik pasa beharrik dagoen ere ez dagoela batere garbi, beste bide bat ere jarraitu zezaketela, baina ondo iruditzen zaienez gaiak plenotik pasatzea horregatik ekarri dutela plenora.

Idazkariak azpimarratu du ez dela eraikinaren lagapen bat egiten baizik eta eraikinaren erabilerearen lagapen bat. Garantistak izatearren plenotik pasatzea proposatu dela adierazi du.

Josune Urkolak esan du eraikinaren erabilera lagatzen baduzu, eraikina bera ere lagatzen duzula, ezin baita beste zerbaitetarako erabili.



Usurbilgo Udala

Idazkariak zehaztu du kontzeptu juridikoa desberdina dela.

Andoni Atxegak adierazi du erabaki bat hartu aurretik jakin beharra daukatela zertarako erabiliko den, eraikuntza nola dagoen, zein baldintzetan, ze kostu izango duen Udalarentzat, zerbait konkretua buruan ote duten... Hau guztia argitzeko gai hau batzordetik pasatzea beharrezkoa iruditzen zaio.

Alkateak zehaztu du hitzarmen honen bidez ETSk lagapen bat egiten diola Udalari eta ez dela erabakitzen lokal horren erabilpena zeni edo nola eman.

Puntu hau diktaminatu gabe datorrenez, hasteko, batzarkideek gai-zerrendan sartzea berretsi dute gehiengoz.

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Irene Garcia Palacios, Jose Mari Iribar Zapirain eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Aurkako botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Alkateak adierazi du bost urterako lagapena aurreikusten dela, gero urtez urte berritzen joan daitekeena beste bost urtez, guztira gehienez 10 urte.

Batzarkideek, alkatearen proposamena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio testuak:


“Esp. Zenbakia: ID.21/2016-0463

GAIA: Red Ferroviaria Vasca - Euskal Trenbide Sarea erakunde publikoaren eta Usurbilgo Udalaren arteko elkarlanerako hitzarmena, Aginako geltoki zaharraren eraikina lagatzeko, jarduera sozio-kulturaletarako.

-AURREKARIAK-

1987 urtarrilaren 27an Eusko Jaurlaritzak Usurbilgo udalari Aginako tren estazioko erabileraren doako lagapena egin zion, eta honek 1987ko apirilaren 29ko plenoan onartu zuen erabileraren lagapena.

Lagapen hori 50 urtetarako egin zuen Jaurlaritzak, eta erabilera konkretu baterako aurreikusi zen: inguruko baserritarrek erabil zezaten hain zuzen ere. Horrela, 1987ko



Usurbilgo Udala

maiatzaren 31an sinatutako emate-aktan jasotzen den legez, Jose Angel Zubeldia Garin.i 20 urtetarako laga zitzaion eraikina. Urte horiek pasata, Udalari itzuli zitzaion eraikinaren erabilera.

1987An jasotako derrigorrezko erabileraren mugak ikusita batetik, 2007an onartutako eta 2008an argitaratutako 2/2007 legegintzako Dekretua, Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina onartzen dena bestetik, tartean lagapenen epe-mugak arautzen dituen bestetik, eta batez ere Usurbilgo Udalak eraikinari erabilera eman nahi diola kontuan hartuta, gaur egun 118/2006 dekretuaren bitartez RFV-ETS.ri dagokion eraikinaren erabilerarako hitzarmen berria bultzatu da.

-KONTUAN HARTURIK-

Aginako (Txokoaldeko) tren estazioa maiatzaren 21eko 6/2004 legearen bitartez sortutako "Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea" erakunde publikoari atxiki zitzaioa, 118/2006 dekretuaren bitartez.

Usurbilgo udalerriko Udala, bere eskumenen eremuan, interesa duela zenbait jarduera kultural sustatzeko, eta horretarako, egoki irizten duela Aginako geltoki zaharreko eraikinari erabilera hori ematea, kontuan izanda une honetan ez duela tren erabilerarik, ezta bestelakorik ere.

RFV-ETS.rekin izandako hartu-emanak medio, erakunde publikoa prest azaldu dela Usurbilgo Udalarekin Lankidetzak hitzarmena sinatzeko, Aginako geltoki zaharreko eraikinaren erabilera Usurbilgo Udalari lagatzeko, jarduera kulturalak ezarri eta hauek aurrera eraman ahal izateko, 5 urteko epe luzagarrirako, bi aldeak ados egonez gero, urtez urte, beste bost urte bete arte. (Hitzarmenaren testua honi atxikita doa)

Guzti hau kontuan izanik, Udalbatzak honako erabakia hartu du gehiengoz:

ERABAKIA


LEHENENGOA: Red Ferroviaria Vasca - Euskal Trenbide Sarea erakunde publikoaren eta Usurbilgo Udalaren arteko elkarlanerako hitzarmena, Aginako geltoki zaharraren eraikina lagatzeko, jarduera sozio-kulturaletarako, onartzea bertan jasotako baldintzekin.

BIGARRENA: Alkatea ahalmentzea Udalaren izenean lankidetzak hitzarmen hau sinatzeko.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri RFV-ETSri ematea.

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Irene Garcia Palacios, Jose Mari Iribar Zapirain eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.



Usurbilgo Udala

Aurkako botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

6.- MOZIOA: 1936KO ALTXAMENDU FRANKISTAREN GAITZESPENA.

Alkateak adierazi du EH Bildu udal taldeak Antolakuntza Batzordean testu bat aurkeztu zuela eta gainontzekoen ekarpenak kontutan hartuta mozioa osatu egin zela, eta orain hona ekartzen den mozioa Antolakuntza Batzordearena dela.

Sarreraren laburpen bat egin ondoren, mozioaren puntuak irakurri ditu.

Jarraian, azpimarratu du oso garrantzitsua dela horrelako gaietan alderdiak ados jartzea eta memoriaren eta bizikidetzaren bide horretan elkarrekin joan beharra dutela adierazi du.

Batzarkideek, Antolakuntza Batzordeak irailaren 19an adostutako mozioa aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio testuak:

“80. urteurrena bete du 1936ko uztailaren 18ko altxamendu frankistak. Altxamendua, Alemaniako nazien eta Italiako faxisten laguntzarekin, 1931ko apirilaren 14ean demokratikoki eratutako Errepublikaren kontra egin zen, eta baita zilegitasun osoz sortutako Eusko Jaurlaritzaren kontra ere, garai hartan J. Antonio Agirre lehendakaria buru zuelarik.

Matxinadak diktadura gogor bat ezarri zuen eta berrogei urte baino gehiagotan milaka eta milaka pertsonaren oinarrizko giza eskubideen urraketa ekarri zuen: desagertuak, fusilatuak, exekuzio sumarioak, kontzentrazio esparruak, esklabotza lan batailoian, torturatuak, arbitrarioki atxilotuak, exiliatuak, jazarpenak...

Harro gaude basakeria haren aurka borrokatu zuten haietaz, zeukaten gutxi hori ere sakrifikatu zuten haietaz, beraien bizitza, alegia. Eta horregatik memoria historikoa berreskuratu eta diktadurako biktimen kalte-ordaina emateko neurri guztien alde egingo dugu. Hori dela eta, benetan ulertzen dugu urtetan urratutako eskubideengatik kalte-ordaina jasotzeko behar diren ekintza judizialei ekiteko beharra sentitzen duten banakoen gogoia. Ulertzen ditugu, Argentinako Buenos Aireseko kereilaren bidez beren eskubideen alde egin duten pertsonak, edo erregimen frankistak fusilatu eta desagerrarazi zituen senitartekoek aurkeztutako ekimenaren bidea hartu dutenak. Era berean Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluak dituen hainbat erakunderen inpunitatearen aurkako erabakiek oinarri sendoa ematen dio Egia, Justizia eta Erreparazioaren aldarriari.



Usurbilgo Udala

Oztopo juridiko gaindiezinak daudela konbentzitu nahian ibili dira orain arte. Baina benetan gertatu dena da justizia espainiarrak frankismoaren gizateriaren aurkako krimenak ikertzeari uko egin diola gaurdaino, argudio eutsiezinekin.

Hau guztia kontutan hartuta, Udal honek honako ebazpen hau onartzen du:

1. Udalak uztailaren 18ko altxamendua salatzen du, baita 1936ko gerra eta ondorengo erregimen frankista diktatoriala ere.
2. Udalak eskatzen du justiziak argitu ditzala udalerrian diktadura frankistak eragindako gizateriaren kontrako krimenetatik erator daitezkeen erantzukizunak, izan penalak edo bestelakoak.
3. Udal honek diktadura frankistaren biktimak eta senitartekoak babesten ditu, eta gertakari eta pertsona horien memoria iraunarazteko borondatea erakusten du.
4. Udalak frankismoaren biktimei egia, justizia eta erreparazioa zor zaiela aitortzen du eta horrela, Argentinako jurisdikzioan irekitako kereilarekin bat egiten du.
5. Gure herriko biktimek edo biktimen senitartekoek hala nahi izanez gero, ekinbide judizialak bideratzeko aholkua eta laguntza emateko prestasuna agertzen du udal honek. Horrekin batera, udalak egokituko diren bitartekoak erraztuko ditu prozedura penalera erantsia izan dadin, udal artxiboetan dagoen dokumentazio, testigantza eta proba oro, frankismoaren zapalkuntza guztien zentsu ahalik eta osatuena landu dadin.
6. Etorkizunari begira, memoriaren eta bizikidetzaren aldeko konpromisoa berresten dugu.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Miren Josune Estella Arranz, Irene Garcia Palacios, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisola. eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, mozioa aho batez onartua izan da.

7.- GALDERA-ESKAERAK.

Fermin Orue-Echevarriak galdetu du Ingemar enpresako egoera ea nola dagoen.

Alkateak erantzun dio egoera ez dela hobetu. Inbertsore posibleen bilaketa horretan aukera batzuk egon direla ere esan du. Mozioa onartu zenean eta langileak hemen



Usurbilgo Udala

egon zirenean, adibidez, inbertsore baten proposamena mahai gainean zegoen, bideragarritasun plan bat mahai gainean jartzeko aukera ere bai, baina praktikan ez omen da mahai gainean jarri, besteak beste, horrek behar zituen berme ekonomikoak ez zirelako iritsi.

Era berean, Ikei enpresak bideragarritasun plan bat aurkeztu duela adierazi du, baina ez direla inbertsore baten eskutik iritsi eta momentu honetan mahai gainean dagoen plan bakarra dela gaineratu du.

Beste inbertsore bat egon daitekeela ere komentatzen dela esan du, baina oraingoz zurrumurrua dela aipatu du.

Beraz, momentuz, aldean arteko eztabaidarako dokumentu bakarra aipatutako bideragarritasun plana dela eta bilerak eta egiten ari direla adierazi du.

Maila pertsonalean adierazi du berak ez duela pesimista izan nahi eta iruditzen zaiola halako batean lortuko dela plan bat mahai gainean jarri eta hori bideratzea. Hala ere, gauzak dauden bezala, oso zaila iruditzen zaio Ingemar gaur egun ezagutzen dugun bezala aurrerantzean ere ezagutzea, izan ere plantilaren birmoldaketa sakon bat egitea derrigorrezkotzat jotzen delako eta baita bere lanaren espezializazio bat hartzea ere.

Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:26ean eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.